# Bestelako Xedapenak

## NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA

**347**

EBAZPENA, 2008ko abenduaren 11koa, Landa eta Itsasertzeko Garapeneko zuzendariarena, urriaren 7ko 171/2008 Dekretuan jasotako xedapen iragankorren babesean emandako dirulaguntzen diru-baliabideen zenbateko berria argitara ematen duena. Aipatutako dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-inguruneak sustatu eta garatzeko laguntzak arautu ziren (Erein programa).

2008ko urriaren 21ean argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (201. zk.) urriaren 7ko 171/2008 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-inguruneak sustatu eta garatzeko laguntzak arautu zituena (Erein programa).

Aipatutako dekretuan jasotako xedapen iragankorren bitartez dekretuan bertan arautzutako dirulaguntzetarako deialdia egin da 2008. urterako. Hirugarren xedapen iragankorrak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura deialdi horretarako jarritako diru-baliabideak jasotzen ditu. Diru-baliabide horiek 8.180.000 eurokoak dira; horietatik 3.430.000 euro 2008. urterako ordainketa-kreditduetarako dira, eta 4.750.000 euro 2009. urteko konpromiso-kreditduetarako. Bere aldetik, dekretuaren hirugarren artikuluan ezarritakoaren arabera, aurrekontu-ekitaldi bakoitzaren barruan emango diren laguntza guztien zenbateko osoak ez du gaindituko deialdiaren aginduan urtero hura finantzatzeko ezarritako gehienezko zuzkidura, ezta hura eguneratzetik ateratzen den kopurua ere, indarrean dagoen legedian aurreikusitako kredituen edo aurrekontu-aldaketen arabera. Eskatutako laguntzen zenbateko osoa kontuan harturik, zenbateko hori aldatu ahal izango da, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren beste laguntza-egitarau batzuk gauzatzean agortu ez den aurrekonturik izanez gero, laguntzei buruzko ebazpena eman baino lehen. Hala gertatuz gero, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendariaren ebazpen baten bidez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian jakinaraziko da.

Horren harian, Landa Garapeneko Zuzendaritzak, egin beharreko izapideak egin ondoren, laguntzetarako kreditu propioen zenbatekoari 6.030.000 euro gehitzea erabaki du. Kopuru horretatik 3.630.000 euro 2008. urterako ordainketa-kredituari dagozkio, eta 2.400.000 euro, 2009rako konpromiso-kredituari.

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN

**347**

RESOLUCIÓN de 11 de diciembre de 2008, del Director de Desarrollo Rural y Litoral, por la que se da publicidad al nuevo importe de los recursos económicos destinados a la financiación de la convocatoria de ayudas realizada al amparo de las Disposiciones Transitorias recogidas en el Decreto 171/2008, de 7 de octubre, por el que se regulan las líneas de ayudas a la promoción y desarrollo de las zonas rurales de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Programa Erein).

Con fecha 21 de octubre de 2008 se publicó en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 201 el Decreto 171/2008, de 7 de octubre, por el que se regulan las líneas de ayudas a la promoción y desarrollo de las zonas rurales de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Programa Erein).

Mediante las Disposiciones Transitorias recogidas en el citado Decreto se ha procedido a convocar, para 2008, las ayudas en él reguladas. La Disposición Transitoria Tercera recoge los recursos económicos, con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de País Vasco, destinados a la convocatoria, los cuales ascienden a la cantidad de 8.180.000 euros, de los cuales 3.430.000 euros corresponden a crédito de pago para el año 2008 y 4.750.000 euros a crédito de compromiso para el año 2009. Por su parte, el artículo tercero del decreto establece que el volumen total de las ayudas a conceder dentro de cada ejercicio presupuestario no superará la dotación global máxima destinada a su financiación o el que resulte de su actualización, conforme al régimen de vinculación crediticia o de modificación presupuestaria previsto en la legislación vigente. Dicho importe podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, con carácter previo a la resolución de las mismas. De la presente circunstancia se dará publicidad mediante resolución del Director de Desarrollo Rural y Litoral en el Boletín Oficial del País Vasco.

En este sentido, la Dirección de Desarrollo Rural ha acordado, previa la realización de los trámites oportunos ampliar en 6.030.000 euros los recursos económicos de la convocatoria. De dicho importe 3.630.000 euros corresponden a crédito de pago para el ejercicio 2008 y 2.400.000 euros de crédito de compromiso para el ejercicio 2009.

Gehitze horren ondoren, 2008ko ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura emango diren laguntzak 14.210.000 eurokoak izango dira. Kopuru horretatik 7.060.000 euro 2008ko ekitaldiko ordainketa-kredituari dagozkio eta 7.150.000, berriz, 2009ko konpromiso-kredituari.

Hori dena kontuan izanik, honakoa

EBATZI DUT:

Urriaren 7ko 171/2008 Dekretuaren xedapen iragankorren itzalpean, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-inguruneak sustatu eta garatzeko dirulaguntzetarako (Erein programa) deialdia finantzatzea helburu duen krediturako, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura 6.030.000 euro gehiago bideratu direla argitara ematea. Horietatik 3.630.000 euro 2008ko ordainketa-krediturako dira eta 2.400.000 euro 2009ko konpromiso-krediturako. Horrenbestez, 2008ko ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura emango diren laguntzak 14.210.000 eurokoak izango dira. Kopuru horretatik 7.060.000 euro 2008ko ekitaldiko ordainketa-kredituari dagozkio eta 7.150.000, berriz, 2009ko konpromiso-kredituari.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abenduaren 11.

Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendaria,
JUAN CARLOS ZULOAGA EIZAGIRRE.

Como consecuencia de esta ampliación, la cuantía total autorizada para la convocatoria, con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de País Vasco, asciende a la cantidad de 14.210.000 euros de los cuales 7.060.000 euros corresponden al ejercicio 2008 y 7.150.000 euros de crédito de compromiso para el ejercicio 2009.

En virtud de lo expuesto,

RESUELVO:

Dar publicidad al incremento de los recursos económicos, con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de País Vasco, destinados a la convocatoria recogida en las Disposiciones Transitorias del Decreto 171/2008, de 7 de octubre, por el que se regulan las líneas de ayudas a la promoción y desarrollo de las zonas rurales de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Programa Erein), en la cuantía de 6.030.000 euros de los cuales 3.630.000 euros corresponden a crédito de pago para el ejercicio 2008 y 2.400.000 euros de crédito de compromiso para el ejercicio 2009. Así, la totalidad de los recursos económicos con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de País Vasco ascienden a la cuantía de 14.210.000 euros de los cuales 7.060.000 euros corresponden al ejercicio 2008 y 7.150.000 euros de crédito de compromiso para el ejercicio 2009.

En Vitoria-Gasteiz, a 11 de diciembre de 2008.

El Director de Desarrollo Rural y Litoral,
JUAN CARLOS ZULOAGA EIZAGIRRE.